



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko otsailaren 12a

19. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Interpelazioa, Lizarrako Osasun Barrutiko Oinarrizko Laguntzako osasun arloko politikari buruzkoa. Patricia Fanlo Mateo andreak aurkeztu du (3. or.).
- Interpelazioa, Nafarroako Osasun Mentalaren arloko politikari buruzkoa. Patricia Fanlo Mateo andreak aurkeztu du (3. or.).
- Interpelazioa, energia berriztagarrien gai orokorrari buruzkoa, azpiegitura eoliko eta fotovoltaikoak sustatzeko irizpideei dagokienez. Laura Aznal Sagasti andreak aurkeztu du (4. or.).
- Interpelazioa, Nafarroako azpiegituren arloko politika orokorrari buruzkoa. Jorge Aguirre Oviedo jaunak aurkeztu du (5. or.).
- Interpelazioa, Nafarroako kirolaren arloko politika orokorrari eta Nafarroako kirola digitalizatzeari buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak aurkeztu du (5. or.).
- Interpelazioa, kulturaren arlo politikari buruzkoa, 2021erako erronkei eta plangintzari dagokienez. Ana Isabel Ansa Ascunce andreak aurkeztu du (6. or.).
- Interpelazioa, Osasun Departamentuko profesionalentzako ordainsarien arloko politikei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztu du (6. or.).
- Interpelazioa, Estellerria biziberritzeko neurri eta konpromiso orokorrei buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da paziente diabetikoen osasun arreta hobetu dezan. Patricia Fanlo Mateo andreak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez Osasun Departamentua premiatzen da plan bat presta eta abian jar dezan Nafarroa osoan pediatriaren estaldura segurtatzeko. Domingo González Martínez jaunak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen da eskura dituen mekanismoak erabil ditzan seme-alabak haur-eskoletan euskaraz matrikulatzeko familien eskubidea bermatzeko. EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztu du (10. or.).

- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da NUPi finantza-hornidura eman diezaion, ukitutako NUPeko AZLei gradua aitortzearen eta maila-aldaketen ondorioz ordaintzeke dauden ordainketei aurre egin ahal izateko. Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkeztu du (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da oinarrizko osasun eskualde berri bat sor dezan eta hirugarren osasun etxe bat eraiki dezan Tuterako Lourdes auzoan. Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztu du (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Cascanten osasun etxe berria eraiki dezan. Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztu du (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da sustapen-kanpaina bat eta turismo-plan integral bat diseina ditzan Nafarroako Liburutegiaren 150. urteurrena, Liburutegien Sarearen 75. urteurrena eta 2021eko Donejakue Urtea direla eta. Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkeztu du (15. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du, elektrizitatearen barne merkatuari buruzko arau komun 2019/944 Zuzentarauan ezarritakoari jarraikiz, Trantsizio Ekologikorako Ministerioak prezioak aldi baterako finka ditzan, gutxienez ere alarma egoera amaitu arte, aipatu zuzentarauaren 5. artikulua aurreikusten dituen salbuespenen arabera. Garapen Ekonomiko eta Enpresariako Batzordeak onetsia (16. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Nafarroako Gobernuaren Audenasarentzako ekarpena kalkulatzeko lantaldeari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, Arga eta Urederra ibaietako kontserbazio bereziko eremuaren (KBE) gidaritza batzordea eratzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, Arga eta Urederra ibaietako kontserbazio bereziko eremuaren (KBE) kudeaketa planaren finantzaketari eta gastuei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, Ega eta Urederra ibaietako kontserbazio bereziko eremuaren (KBE) gidaritza batzordea eratzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (20. or.).
- Galdera, 2020ko martxoaren 13tik Nafarroako Gobernuak izapidetutako enplegu erregulazioko espedienteen txostenean jasotako datuen bilakaerari buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (21. or.).
- Galdera, Kanarrietatik datozen migratzaileak hartzeko plaza gehigarriari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (21. or.).
- Galdera, Ertzillako Iturburuaren Partzuergoari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (22. or.).
- Galdera, Arizkun herriko seinaleetan legea betetzeari buruzkoa. Francisco Pérez Arregui jaunak egin du (23. or.).
- Galdera, Nafarroako Ubidearen 2. fasearen garapenari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (24. or.).
- Galdera, enplegu-politika aktiboen dokumentua onesteari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (24. or.).
- Galdera, Nafarroako osasun etxeetan pediatrik falta izateari buruzkoa. Ana Isabel Ansa Ascunce andreak egin du (25. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak osatutako aldi baterako enplegu erregulazioko espedienteei buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (25. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuko aretoen erabilerari buruzko arauak aldatzea (27. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Interpelazioa, Lizarrako Osasun Barrutiko Oinarrizko Laguntzako osasun arloko politikari buruzkoa.

PATRICIA FANLO MATEO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Fanlo Mateo andreak aurkezturiko interpelazioa, Lizarrako Osasun Barrutiko Oinarrizko Laguntzako osasun arloko politikari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapideztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Patricia Fanlo Mateo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, honako interpelazio hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Lizarrako Osasun Barrutian, Oinarrizko Laguntzak zortzi osasun eskualde oinarrizko hartzen ditu, eta banakako osasun txartelen arabera 60.000tik gora laguni ematen die arreta. Oinarrizko Osasun Laguntza apustu estrategikoa da, Gobernu Akordioan islatzen den moduan, baina oraingo pandemiak gauza bat utzi digu argi: COVID-19aren aurkako borrokan izan duen funtsezko eginkizuna.

Horregatik guztiagatik, Lizarrako Osasun Barrutiko Oinarrizko Laguntzan darabilten osasun arloko politikari buruzko interpelazioa egiten diogu Nafarroako Gobernuari.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 31n

Foru parlamentaria: Patricia Fanlo Mateo

Interpelazioa, Nafarroako Osasun Mentalaren arloko politikari buruzkoa.

PATRICIA FANLO MATEO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Fanlo Mateo andreak aurkezturiko interpelazioa, Nafarroako Osasun Mentalaren arloko politikari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapideztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Patricia Fanlo Mateo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Osasun Mentalaren arloan ugaritu egin dira giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak, baina

hainbat erronka berri daude, esate baterako, Osasun Mentalaren III. Plana ezarri eta garatzea, plantillak egonkortzea, azpiegituretan inbertitzea eta baliabide soziosanitarioetako plaza kopurua handitzea.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Osasun Mentalaren arloko politikari buruzko interpelazioa egiten diogu Nafarroako Gobernuari.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 31n

Foru parlamentaria: Patricia Fanlo Mateo

Interpelazioa, energia berriztagarrien gai orokorrari buruzkoa, azpiegitura eoliko eta fotovoltaikoak sustatzeko irizpideei dagokienez.**LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK AURKEZTU DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak aurkezturiko interpelazioa, energia berriztagarrien gai orokorrari buruzkoa, azpiegitura eoliko eta fotovoltaikoak sustatzeko irizpideei dagokienez.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Laura Aznal Sagastik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Gure erkidegoan azpiegitura eoliko eta fotovoltaikoak ezartzeko proiektuak ugaritzen ari dira, bertan sartuta dagoeneko abian daudenak zein aurreikusitakoak, eta horren harira eztabaida publiko eta soziala piztu da Nafarroako udalerrri eta kontzeju askotan. Hori dela eta honako hau aurkezten dugu:

Nafarroako Gobernuarentzako interpelazioa, energia berriztagarrien gai orokorrari buruzkoa, azpiegitura eoliko eta fotovoltaikoak sustatzeko irizpideei dagokienez.

Iruñean, 2021eko otsailaren 2an.

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

Interpelazioa, Nafarroako azpiegituren arloko politika orokorrari buruzkoa.

JORGE AGUIRRE OVIEDO JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Aguirre Oviedo jaunak aurkezturiko interpelazioa, Nafarroako azpiegituren arloko politika orokorrari buruzkoa.
2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.
3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Jorge Aguirre Oviedo jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau egiten dio Lurralde Kohesiorako kontseilariari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Interpelazioa, Nafarroako Gobernuak gure erkidegoko azpiegiturak direla-eta garatuko duen politika orokorrari buruzkoa, lurralde kohesioa eta gizarte egituraketa lortzeari begira, esate baterako Nafarroako Ubideari edo azpiegitura energetikoei, digitalei edo mugikortasun jasangarrikoei dagokienez.

Iruñean, 2021eko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Jorge Aguirre Oviedo

Interpelazioa, Nafarroako kirolaren arloko politika orokorrari eta Nafarroako kirola digitalizatzeari buruzkoa.

CARLOS MENA BLASCO JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak aurkezturiko interpelazioa, Nafarroako kirolaren arloko politika orokorrari eta Nafarroako kirola digitalizatzeari buruzkoa.
2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.
3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Carlos Mena Blascok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Nafarroako kirolaren arloko politika orokorrari eta, zehazki, Nafarroako kirola digitalizatzeari buruzko interpelazioa egiten dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Iruñean, 2021eko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

Interpelazioa, kulturaren arlo politikari buruzkoa, 2021erako erronkei eta plangintzari dagokienez.

ANA ISABEL ANSA ASCUNCE ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Isabel Ansa Ascunce andreak aurkezturiko interpelazioa, kulturaren arlo politikari buruzkoa, 2021erako erronkei eta plangintzari dagokienez.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapideztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ana Ansa Ascunce andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kiroleko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2020koa urte bereziki gogorra izan da kulturarako eta kulturaren sektorearentzat, programazioaren zati handi bat bertan behera utzi behar izan delako, bai eta programa eta jardura guztiak doitu ere, kontuan edukita osasunaren arloko iradokizun guztiak, egoera epidemiko aldakorren ondoriozkoak.

Urte bat hasi dugu, eta atzean utzi dugu pandemiaren hasierako nahasmendua. Horregatik, Departamentuaren kultura-politikaren esparruan, 2021. urterako erronkei eta aurreikusitako planifikazioari buruzko interpelazioa egiten diogu Kulturako kontseilariari.

Iruñean, 2021eko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: Ana Ansa Ascunce

Interpelazioa, Osasun Departamentuko profesionalentzako ordainsarien arloko politikei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko interpelazioa, Osasun Departamentuko profesionalentzako ordainsarien arloko politikei buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapideztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkeztu dio Gobernuari, Osasun Departamentuko profesionalentzako ordainsarien arloko politikei buruzkoa, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Osasun arloko profesionalen eskasiako egoera batean eta gero eta zaharragoa den eta arazo konplexuagoak dituen populazioaren osasunari erantzun integrala eman behar zaionean, ezinbestekoak dira profesionalak erakartzeko eta atxikitze politikak.

Iruñean, 2021eko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Interpelazioa, Estellerria biziberritzeko neurri eta konpromiso orokorre buruzkoa.

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko interpelazioa, Estellerria biziberritzeko neurri eta konpromiso orokorre buruzkoa.
2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.
3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako

interpelazio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Interpelazioa, Estellerria biziberritzeko eta bertako udalerrietako jendeak oinarrizko zerbitzuetara iristea bermatzeko Nafarroako Gobernuak darabiltzan neurri eta konpromiso orokorre buruzkoa.

Estellerria, Pirinioekin batera, Foru Komunitateko eskualde zahartuena da eta Nafarroan, oro har, despopulazio handiena eta dentsitate txikiena daukana.

Joan den urtarrilean Nafarroako Gobernuak "Nafarroako lurralde desberdintasunak. Erronkak eta proposamenak" izeneko diagnostikoa aurkeztu zuen, Errealitate Sozialaren Behatokiak egina. Bertako erradiografian Jurramendi zonaldea agertzen da lehentasuneko jarduketak behar dituzten artean, hura biziberritzera eta zerbitzuak egoki ematera bideratuak, landa eremuak duen despopulazio arriskuaren aurrean.

Iruñean, 2021eko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da paziente diabetikoen osasun arreta hobetu dezan.

PATRICIA FANLO MATEO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Fanlo Mateo andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita paziente diabetikoen osasun arreta hobetu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Patricia Fanlo Mateo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osasun Batzordean eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da paziente diabetikoen osasun arreta hobetu dezan.

COVID-19ak eragindako pandemia-egoera honetan, diabetesa duten pazienteek talde zaurgarriagoa osatzen dute, infekzio-prozesuaren eragin zuzenagatik ez ezik, pandemia-garai hauetan diabetesa dutenek gaixotasunarekin era egokian moldatzeko dauzkaten zailtasunengatik ere.

Egungo pandemia-egoerak ahalbidetu dezake diabetesa duten pertsonen kontrolak okerrera egitea, osasun sistemara sartzeko zailtasunengatik, jarduera fisikoaren faltagatik eta konfinamenduari loturiko estresa areagotzeagatik.

Horregatik guztiagatik, sozialisten talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du:

1. Diabeteserako diziplina anitzeko unitate funtzional bat sor dezan Nafarroako Ospitalegunean.

2. Nafarroako Osasun Sisteman hezkuntza diabetologiko egokia eman diezaien 1 eta 2 motako diabetesa duten pazienteei.

3. Kalitatezko material suntsikorra ziurta dezan paziente diabetikoentzat eta glukosa-sentsoreak sar ditzan 1 eta 2 motako diabetikoen prestazioen artean.

4. Oinarrizko Osasun Laguntzako profesionalak diabeteserako teknologia berrietan eta tratamenduetan trebatu ditzan, hala nola intsulinez hornitzeko gailuak eta glukosa-sentsoreak.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 31n

Foru parlamentaria: Patricia Fanlo Mateo

Mozioa. Horren bidez Osasun Departamentua premiatzen da plan bat presta eta abian jar dezan Nafarroa osoan pediatriaren estaldura segurtatzeko.

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Osasun Departamentua premiatzen baita plan bat presta eta abian jar dezan Nafarroa osoan pediatriaren estaldura segurtatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Begi bistakoa da gaur egun mediku pediatriaren eskasia dagoela, Iruñeko Alde Zaharra bezalako hiriguneetan eta Bortzirriak bezalako landa eremuetan agerian geratzen ari denez. Gainera, jakin dugu hurrengo otsailaren 1etik aurrera Azkoienen, Fustiñanan, Cadreitan, Cascanten eta Tuteran ere ez dutela pediatria zerbitzurik izanen; horretaz gain, Nafarroako beste oinarrizko osasun eskualde batzuetan badira pediatriako lanpostuak pediatriako espezialitaterik ez duten medikuek betetzen dituztenak.

Hau ez Nafarroak soilik duen arazo bat, Estatu osoan gertatzen dena baizik. Egoera hori duela urte askotatik heldu da; izan ere, Estatuan ezarritako neurriek (Barruko Mediku Egoiliarren lanpostu aldazkinak, lanpostu hutsen eta erretiroa hartutako langileen ordezte-tasa) eta UPN eta PSNren aurreko gobernuen politikak (murrizketak, 2013ko eta 2015eko LEPak, non pediatriako zazpi lanpostu besterik ez baitziren eskaini...) eragina izan dute pediatria zerbitzuaren lan baldintzetan eta kalitatean, bai eta Oinarrizko Osasun Laguntzako medikuengan eta gainerako profesionalengan ere.

Haurrak mediku pediatrik artatu behar dituztela aldeztu behar da. Jarrera hori agertu du Parlamentuak askotan, bai profesionalekin eginiko lanbilkuretan, bai zenbait moziotan, zeinen bidez Osasun Departamentua premiatzen baitzen ardurara bere gain hartu eta eskura zituen neurriak har zitzan egoera hori leheneratzeko. Hori dela eta, gure apustua profesionalak erakarri eta fidelizatzea da. Lan hori familia medikuek egitea onargarria izan daiteke, salbuespen gisa, betiere denbora mugatua bada, laguntza-ikastaroak jaso badituzte eta bitartean lan egiten bada egiazki mediku pediatrik izan daitezten haurrak artatuko dituztenak.

Egoerari aurre egiteko hartu beharreko neurrien artean, apustu egin beharra dago Osasunbideak haur osasuntsuaren arreta dela-eta proposatzen duen jarduketa eta erizaintzak arlo pediatrikoan duen eginkizuna berrikustearen alde.

Aurreko legegintzaldian, Osasun Departamentuak epe labur eta ertainean emaitzak izan zitzaizketen zenbait neurri landu zituen, baina errealitatea da ez dagoela jasota jarduketa horiek gauzatu direnik, eta pediatrik gabeziak oso kezagarria izaten jarraitzen du. Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bi hilabeteko epean Nafarroa osorako pediatrik estaldura ziurtatzeko epe labur eta ertainerako plan bat presta dezan, era partehartzailean, eta plan hori abian jar dezan. Planak ondoko neurriak jasoko ditu bederen:

a. Lan eskaintza publikoa, egungo pediatria zerbitzuaren beharrei erantzuteko lanpostu nahikoak jasoko dituenak.

b. Egiturazko iraupen luzeko kontratuak lanpostu huts bihurtzea eta behin-behineko administrazio-kontratu luzeagoak egitea betetzeko zailak diren landa-eremuko postuetarako.

c. Pediatriako irakaskuntza-unitate berriak sortzea Nafarroako Ospitalegunean, arlo anitzeko profesionalez osatuak, eta barneko mediku egoiliarren kopurua handitzea.

d. Arlo anitzeko prestakuntza ikastaro bat garatzea arreta pediatrikoa eskaini behar duten mediku eta erizainen ezagutza-gabeziak arintzeko, lanpostuak betetzea ezinezkoa den kasuetan. Ikastaroak jasoko ditu Oinarrizko Laguntzan funtsezkoak diren prebentzioko alderdiak, bai eta gutxienez hilabetez pediatria eta/edo pediatriko erizain espezializatu batekin jarduteko aukera ere.

e. Pediatriako espezialitatea ez duten medikuek betetako lanpostuetan, erizaintza pediatriko zerbitzua indartzea lehenengo sei hilabeteetan.

f. Pediatriko erizain espezializatuak jartzea pixkanaka eta pediatriko lanpostuetan hiru urtetik gorako esperientzia duten erizainei eginkizun eta eskumen horietarako homologazioa ematea. Espezialitatea edo esperientzia nahikorik bermatzea ezinezkoa denean, lanposturako prestakuntza berariazkoa emanen zaie jarduera hasi baino lehen, eta sartuko den langileak eta aterako denak jarduera hilabete bat partekatuko dute edo, hori ezinezkoa bada, bestelako aukerak bilatuko dira.

g. Erizaintza Pediatrikoa espezialitatea ezartzea NUPen, halako moduz non Nafarroako osasungintzan nahikoa langile egonen baita haren beharretara egokitzeko.

Landa-eremuko lanpostuak eta betetzeko zailak direnak saritzea.

i. Osasunbideak haur osasuntsuaren arreta dela-eta proposatzen duen jarduketa eta pediatriko erizaintzaren eginkizuna berrikustea.

j. Osasun Ministerioa premiatzea BAME lanpostuak areagotu eta Lan Eskaintza Publikorako deialdiak egiteko murrizketak eta ordezte-tasa desagerraraz ditzan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 1ean

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

Mozioa. Horren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen da eskura dituen mekanismoak erabil ditzan seme-alabak haur-eskoletan euskaraz matrikulatzeko familien eskubidea bermatzeko.

EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita eskura dituen mekanismoak erabil ditzan seme-alabak haur-eskoletan euskaraz matrikulatzeko familien eskubidea bermatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko eledun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

2019ko abenduan, Auzitegi Nagusiak berretsi egin zuen Iruñeko Udalaren bost haur eskoletan 2016/17 ikasturtean euskarazko plazen eskaintza handitzeko ezarritako hizkuntza-ereduaren aldaketari buruzko epaia. Autoak ondorioztatu zuenez, “horrek hezkuntza-eskaintzaren plangintzari eragiten dio; beraz, Iruñeko Udalak eta haren menpekoa den Iruñeko Haur Eskolen Erakunde Autonomoak ez dute horretarako eskumenik”. Eta argudiatzen zuen Nafarroako Gobernuari zegokio la hezkuntzaren esparruan euskararen irakaskuntza planifikatzea (18/1986 Foru Legea eta 1070/1990 Foru Dekretua).

Epaian ezarritakoa ikusita, Hezkuntza Departamentuak Hezkuntzako zuzendari nagusiaren abenduaren 17ko 538/2020 Ebazpena onetsi zuen, eta hartan ezartzen den prozeduraren arabera Hezkuntza Departamentuak izan behar du toki entitateek haur eskolen inguruan egiten duten eskaintza baimentzen duena, 2021-22 ikasturterako, unitate kopuruari eta hizkuntza-modalitateari

dagokionez. Ebazpen hori oinarri, toki entitateek proposamen horien justifikazioa igorri behar zuten 2021eko urtarrilaren 29a baino lehen, eta Hezkuntza Departamentuak, egoki irizten badio, toki entitateei eskatu ahalko die igorritako proposamenari buruzko justifikazio zehatzagoa.

Iruñeko haur eskoletako eskaintzari dagokionez, Haur Eskolen Erakunde Autonomoaren Gobernu Batzordeak urtarrilaren 28an onetsi zuen hezkuntza-eskaintzaren berregituratzea. “Printzearen Harresia” eta “Hello Buztintxuri” haur eskolen kasuan, gaztelania eta euskara modalitateak sartu dira, biak ere ingelesezko jarduerekin.

Aurretik, “HE Gurasoak Elkartea” plataformak, seme-alabak euskaraz matrikulatu nahi dituzten aitek eta amek osatutakoak, proposamen bat bidali zien udal-talde guztiei. Eskaintza eskariaren arabera egokitzen zuen proposamen horretan, euskarazko eredia eskaintzen zen geografikoki modu orekatuan banatutako 4 haur eskoletan.

Hala ere, azkenean urtarrilaren 28an onetsi zen berregituratze-proposamenak ez zuen premisa horietako bakar bat ere betetzen, ez baitzuen ez txosten pedagogiko egokirik, ez adostasun politikorik, ez eta, are gutxiago, familien eta teknikarien adostasunik.

Udalaren haur eskoletako zuzendaritza guztiek publikoki jakinarazi dute ez daudela ados, eta adierazi dute ez zaiela inolako informaziorik eman eta ez zaiela kontsultarik egin. “Gure ustez, hizkuntza-ereduaren aldaketa horiek ez dira behar bezalako zorrotasun pedagogikoarekin planteatzen ari, eta ez dira behar bezala aztertu eraginen dituzten ondorio eta zailtasun pedagogiko eta antolamenduzkoak (...). Hezkuntza arloko laguntzan eta hizkuntza-murgilketan emandako urteetako esperientziak erakusten digu hirugarren hizkuntza bat adin hain goiztiarrean sartzeak zaildu egiten duela euskara –hizkuntza ofiziala eta gure erkidegoko kultura-ondarea dena– ikastea. Zinez uste dugu hori guztia euskararen eta ingelesaren ikaskuntzaren eta haurren garapeneraren kalterako izanen litzatekeela, eta, beraz, ez diogu inolako onurarik ikusten”, adierazi dute.

Kezka handia dugu aldaketa horren aurrean, bai 0-3 urte bitarteko adingabeen hezkuntza-garapenerako kaltegarria delako, bai Iruñeko eus-

karazko irakaskuntzaren normalizazioan atzerakada badakarrelako.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du, bere eskumenez baliatuta, eskura dituen mekanismoak erabil ditzan nahi duten familiek Iruñeko haur eskoletan seme-alabak euskaraz matrikulatzeko duten eskubidea bermatze aldera, eskaintza nahikoa eta geografikoki orekatua eginez.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 0-3 zikloan hirugarren hizkuntza bat sartzeari buruz adituen irizpideak kontuan har ditzan, eta bazter dezan Iruñeko Udalen proposamena –hau da, Iruñeko haur eskoletan euskarazko eta gaztelaniazko ingelesezko modalitate mistoak ezartzea–, betiere euskarazko kalitatezko eskaintza bermatuz.

Iruñean, 2021eko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da NUPi finantza-hornidura eman diezaion, ukitutako NUPeko AZLei gradua aitortzearen eta maila-aldaketen ondorioz ordaintzeke dauden ordainketei aurre egin ahal izateko.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita NUPi finantza-hornidura eman diezaion, ukitutako NUPeko AZLei gradua aitortzearen eta maila-aldaketen ondorioz ordaintzeke dauden ordainketei aurre egin ahal izateko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeta, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdikoa hamabietan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da NUPi finantza-hornidura eman die-

zaion, ukitutako NUPeko AZLei gradua aitortzearen eta maila-aldaketen ondorioz ordaintzeke dauden ordainketei aurre egin ahal izateko.

2019ko ekainean, Europako Batasuneko Justizia Auzitegiak ebatzi zuen Nafarroako administrazio publikoetan administrazio-araubidean kontratatutako langileek gradu-osagarria kobratu behar zutela, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera, lau urteko atzeraeraginekin. Nafarroako administrazio publiko guztiek bete zuten epaia, eta ahalegin ekonomiko handia egin zuten beren aurrekontuetan, NUPek izan ezik.

Bestalde, maila-aldaketen gaia dago (E-tik D-ra eta D-tik C-ra), langile horiek kobratu behar dutena. 2019ko azaroan aitortu ziren aldaketa horiek, halaxe egin zen, halaber, NUPen.

Nafarroako Gobernuak NUP finantzatzen du, 2018-2020 aldirako urte anitzeko hitzarmenaren bidez, eta 2021era arte luzatu da.

Hirugarren klausulan, egiturazko finantzaketari buruzkoan, adierazten da “langileen kostuei aurre egiteko” dela, eta hamargarren klausulan, finantzaketa-doikuntzei buruzkoan, honako hau adierazten da: “Jarraipen Batzordeak, hala badagokio, Estatuaren eta foru erakundeen araudi berrietatik edo Unibertsitateak erabakitzeke ahalmenik ez duen beste elementu batzuetatik eratorritako ondorio ekonomikoen arabera doituko du finantzaketa, betiere Nafarroako Foru Komunitatearen

magnitute ekonomiko eta aurrekontukoak kon-tuan hartuta”.

Beraz, Nafarroako Gobernuak gai hori konpon-du behar du NUPekin, eta horretarako uniber-tsitateari finantzazio egokia eman behar dio egite-ke dauden ordainketa horiei aurre egiteko.

Guztira 2,5 milioi dira (1,8 graduagatik eta 0,7 maila-aldaketagatik). “Zerbitzu publikoen aldeko apustua egiteaz eta zerbitzu horiek indartzeaz” harrotasunez hitz egiten duen gobernu batek ezin ditu langileen eskubideak urratu.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Gobernu-a premiatzen du NUPi finantza-hornidura eman die-zaion, NUPeko ukitutako AZLei gradua aitor-tzearen eta maila-aldaketen ondorioz ordaintzeke dauden ordainketei 2021eko lehen seihilekoan aurre egin ahal izateko.

Iruñean, 2021eko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernu-a premiatzen da oinarrizko osasun eskualde berri bat sor dezan eta hirugarren osasun etxe bat eraiki dezan Tuterako Lourdes auzoan.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernu-a premiatzen baita oinarrizko osasun eskualde berri bat sor dezan eta hirugarren osasun etxe bat eraiki dezan Tuterako Lourdes auzoan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osasun Batzordean eztabaidatzeko: Nafarroako Gobernu-a premiatzen da oinarrizko osasun barruti berri bat sor dezan eta hirugarren osasun etxe bat eraiki dezan Tuterako Lourdes auzoan.

Tuteran bi osasun etxek ematen dute oinarrizko osasun laguntza: “Santa Ana” edo “Tutera Ekialdea” eta “Gayarre” edo “Tutera Mendebaldea”. Osasun etxe horiek duela 25 urte baino gehiago eraiki zirenetik, Tuterako populazioa % 30 hazi da, batik bat hiriaren erdialdean eta Lourdesko auzoan. Alderdi horietan, 65 urtetik gorako bizilagunak % 20 baino gehiago dira. Lourdesko auzoko populazioarentzat Tuterako beste alderdi batzuetako populazioarentzat baino zailagoa da lehen laguntza-mailako osasun baliabideetara iris-tea, eta horrek inekitate sortzen du, bereziki nabarmena dena bakarrik bizi diren pertsona nagusien kasuan edo joan-etorrian ibiltzeko zailta-sunak dauzkatenen kasuan.

Gaur egun, Nafarroa Mendebaldeko osasun etxeak 13.000 biztanle inguru artatzen ditu, eta Nafarroa Ekialdekoak, berriz, 24.000 biztanle inguru. Lourdesko auzoko populazioa Nafarroa Ekialdekoak artatzen du.

Kalitatezko osasun laguntza eta berritzailea bermatu ahal izateko, bi osasun etxe horien azpiegiturak handitu eta modernizatu beharra dago, egiteko hori geroratu egin baita aldiro.

2018ko urtarrilaren 30ean, Nafarroako Gober-nuko Osasuneko kontseilariak Osasun Ba-tzordean hitzeman zuen urte amaieran esleituko zuela Tutera Ekialdeko osasun etxea handitzeko proiektua eta hasiko zirela obrak.

Nafarroako Gobernuak eta Tuterako Udalak 2018ko urrian aurkeztu zuten berrantolaketa-plan

bat, zeinean aurreikusten baitzen 2019ko urtarrilean hasia Tuterako Ekialdeko osasun etxeak, 2019ko lehen sei hilabetean esleitzeko Tuterako Mendebaldeko handitzeko proiektua eta bigarren sei hilabetean hasia obrak.

2019ko urriaren 24ko Osoko Bilkuran izandako parte-hartzean, Osasuneko kontseilariak beste aurreikuspen bat eman zuen Tuterako Ekialdeko osasun etxearen proiektua esleitzeko –2020aren hasieran–, inolako konpromisorik hartu gabe Tuterako Mendebaldeko handitzeko datari eta Lourdesko auzoan osasun etxe berri bat eraikitzeari dagokienez.

Oposizioan emandako azken urteotan zehar, UPNk, PPK eta PSNk defendatu dute Tuterako beharrezkoa dela hirugarren osasun etxe bat Lourdesko auzoan.

PSNk eta Navarra Sumak Nafarroako Gobernurako eta Tuterako Udalerako azken hauteskundeetarako beren hauteskunde-programan jaso zuten hori guztia.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Tuterako osasun eskualdea berrantola dezan, halako moduan non hobetu egingen baita oinarritzko osasun laguntzako zentrotarako irisgarritasuna, Erriberako hiriburuan Nafarroa Ekialdeko eta Nafarroa Mendebaldeko osasun etxeak eraiki zirenetik izandako populazioaren igoerara egokitzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Tuteran hirugarren osasun etxe bat sor dezan, Lourdesko auzoan.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Tuterako Lourdes auzoko osasun etxe berriaren proiektua egin dezan eta haren obrak 2021ean has ditzan.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Tuterako Mendebaldeko osasun etxea handitzeko proiektua egin eta obrak 2021ean zehar has ditzan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen da Cascanten osasun etxe berria eraiki dezan.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Cascanten osasun etxe berria eraiki dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da, Cascanten osasun etxe berria eraiki dezan.

2020ko otsailaren 27an, Nafarroako urte horretarako Aurrekontu Orokorra onesteko eztabaidan, publikoki iragarri zen Osasun Departamentuan 2020rako aurreikusitako inbertsioen arloan aurreikusitako jarduketan artean osasun etxe berri bat eginen zela Cascanten.

Izan ere, Nafarroako Aurrekontuak onetsi aurretik, harremanetan jarri ziren Cascanteko Udala eta Osasun Departamentuko arduradunak, zentro berrirako kokapen egokiena proposatzeko.

Baina 2020. urte osoan ez da inolako ekintzarik egin, Nafarroako 2021erako Aurrekontu Orokorre-

tan ez da aurrekontuko partidarik sartu aipatu azpiegituren eta aurrekontu horien eztabaidan proiektua idazteko eta 2021ean osasun etxe berri bat eraikitzen hasteko zuzenketa bat ez zen onetsi.

Jakina da Cascanteko osasun etxeko Oinarrizko Osasun Laguntzako taldea eta herriko ordezkari publikoak eskatzen ari direla Cascanteko osasun barrutirako osasun etxe berri bat eraiki dadila, egungo eraikina dituen gabeziak direla-eta.

Eraikin hori txiki eta zaharkituta geratu da. Eraikinak kontsultetarako tamaina txikiagia du eta ez dauka azpiegitura egokirik arreta berritzailea eta erabakigarria emateko, arreta komunitarioarako eta talde-osasunari buruzko hezkuntzarako aretoekin, talde-fisioterapia egiteko gimnasioarekin, kirurgia txikiarekin edo ekografiekin baldintza onenetan.

Gainera, zentroak ez du azpiegituren arretarako zirkuitu bikoitza (COVIDekoak eta COVID gabekoak) mantentzeko edo etorkizuneko osasun-beharrizanetarako, edo eremu bat gaitzeko, Cascanteko oinarrizko osasun eskualdeko herrietako erreferentziako biztanleriari arreta jarraitu eta larrialdikoa emate aldera eguneko 24 orduetan urteko 365 egunetan.

Saiatu behar da osasun etxe berriak efizientzia energetikoa izan dezan.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du 2021. urtean zehar bete ditzan Cascanteko osasun etxe berria eraikitzeko proiektua prestatzeko eta esleitzeko lanak, bai eta eraikuntzako obrak esleitzea eta hastea ere.

Iruñean, 2021eko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da sustapen-kanpaina bat eta turismo-plan integral bat diseina ditzan Nafarroako Liburutegiaren 150. urteurrena, Liburutegien Sarearen 75. urteurrena eta 2021eko Donejakue Urtea direla eta.

ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita sustapen-kanpaina bat eta turismo-plan integral bat diseina ditzan Nafarroako Liburutegiaren 150. urteurrena, Liburutegien Sarearen 75. urteurrena eta 2021eko Donejakue Urtea direla eta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Kultura eta Kiroleko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Bonilla Zafra jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Kultura eta Kiroleko Batzordean eztabaidatzeko:

Mozioa, zeinaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen baita sustapen-kanpaina bat eta turismo-plan integral bat diseina ditzan Nafarroako Liburutegiaren 150. urteurrena, Liburutegien Sarearen 75. urteurrena eta 2021eko Donejakue Urtea direla eta.

Pandemiak zaildu egin du era guztietako ekitaldiak egitea Nafarroan, bereziki kultur esparruan eta, horrenbestez, egun hauetan gure erkidegoan gertatzen diren urteurrenak ospatzea.

1870ean abian zarri zen Nafarroako Liburutegia, eta ezagutzaren hedapenaren erreferente bihurtu da gure erkidegoan eta gure lurraldean; Nafarroa osoan kultura egituratzen duen hari bat ehundu du, gaur arte iristen dena. Aski ezagunak ditugun arrazoiak direla-eta (murrizketak eta konfi-

namendu aldia) 150. urteurrena ospatzeko ekitaldiak ezin izan dira bete ez osorik ezta normaltasunarekin ere, eta egitarauaren zati bat eta urteurren ofiziala datozen hilabeteetara geroratu dira. Halaber, datorren martxoan ere zorioneko beste urteurren bat izanen dugu, Nafarroako Liburutegi eta Filmotekak gaur Iruñean duen eraikin berriaren inaugurazioaren hamargarren urteurrena ospatzen delako.

Beste alde batetik, 2021. urte honetan ere, 75 urte beteko dira Nafarroako Liburutegien Sarea sortu zenetik, eta hainbeste irrikatzen dugun osasun-egoeraren hobekuntzak hitzordu hori gogortzeko ekitaldi gehiago egitea erraztu badezake ere, pentsa daiteke urteurren hori ezin izanen dela egin beste egoera batzuetan izanen genituzkeen normaltasunarekin eta jarduera ugariekin.

Alde horretatik, ezin dugu ahaztu Nafarroak aurten beste hitzordu garrantzitsu bat ospatzen duela, Donejakue Urtea, hain zuzen ere. Horri dagokionez, dagoeneko ezagutzen dugu Gobernuko hainbat departamentuk sustatutako programazioa, baina ezin dugu alde batera utzi programazio hori ere ez dela eginen beste batzuetan bezala; izan ere, mugikortasunaren murrizketek eta pandemiaren beldurrik asko mugatuko dituzte interes espiritual, turistiko edo kulturalengatik gure lurraldera hurbiltzen diren herritarren bisitak.

Horrelako hitzorduen garrantzia gorabehera, jakinda pandemiarik gabeko egoera batean haiengandik espero litekeen izaera ez dutela izanen, eta, halere, turismo- eta kultura-sektorean gure erkidegoko aberastasun historiko-kulturala sustatzeko jarraitzeko premia dagoela, erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du foru hedabideetan eta hedabide nazionaletan, orotarikoetan zein espezializatueta, komunikazio-babesa eman diezaion Nafarroako Liburutegiaren 150. urteurrena, Liburutegien Sarearen 75. urteurrena eta 2021eko Donejakue Urtea ospatzeari.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du plan turistiko eta integral bat diseina dezan, aurten izanen diren hitzorduek dinamizatu, garatu eta bultzatzeko, betiere

pandemiaren murrizketek horretarako aukera ematen badute. Eta horretarako, kontuan har dezan, besteak beste, turismo-, ostalaritza- eta hotel-sektoreetako elkarten eta bidaia-agentzien parte-hartzea.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du irmotasunez lan egin dezan ekitaldi horiek egitearen alde eta herritarrek

horietara joatearen alde, bai eta ekitaldi horietan parte hartzen duten herritarren mugikortasuna erraztearen alde ere, kontu handiz jokatzuz eta osasun- eta gizarte-testuinguru horretan behar diren osasun-neurri guztiak bermatuz.

Iruñean, 2021eko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du, elektrizitatearen barne merkatuari buruzko arau komunen 2019/944 Zuzentarauan ezarritakoari jarraikiz, Trantsizio Ekologikorako Ministerioak prezioak aldi baterako finka ditzan, gutxienez ere alarma egoera amaitu arte, aipatu zuzentarauaren 5. artikulua aurreikusten dituen salbuespenen arabera.

GARAPEN EKONOMIKO ETA ENPRESARIALEKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Batzordeak, 2021eko otsailaren 10ean egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du, elektrizitatearen barne merkatuari buruzko arau komunen 2019/944 Zuzentarauan ezarritakoari jarraikiz, Trantsizio Ekologikorako Ministerioak prezioak aldi baterako finka ditzan, gutxienez ere alarma egoera amaitu arte, aipatu zuzentarauaren 5. artikulua aurreikusten dituen salbuespenen arabera”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“– Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du, elektrizitatearen barne

merkatuari buruzko arau komunen 2019/944 Zuzentarauan ezarritakoari jarraikiz, Trantsizio Ekologikorako Ministerioak prezioak aldi baterako finka ditzan, gutxienez ere alarma egoera amaitu arte, aipatu zuzentarauaren 5. artikulua aurreikusten dituen salbuespenen arabera.

– Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du egungo tarifa arautua (PVPC) ordezteko benetako tarifa arautu bat, gaur egun goa ez bezalakoa, arautu gabe eta merkatu-irizpideen mendean baitago.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lehentasuna eman diezaion autokontsumo eta biltegiatze elektrikoari buruzko planeko programak garatzeari”.

Iruñean, 2021eko otsailaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Gobernuaren AUDENASarentzako ekarpena kalkulatzeko lantaldeari buruzkoa.**MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Gobernuaren AUDENASarentzako ekarpena kalkulatzeko lantaldeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Foru parlamentari honek eginitako 10-20/PES 109 espediente zenbakia duen galderaren erantzunean –Nafarroako Gobernuaren AUDENASarentzako ekarpena kalkulatzeari buruzkoa– ondokoa esaten zen: “Gaiaren garrantzia eta bere analisiaren konplexutasuna ikusirik, iragan maiatzaren 19an Audenasaren administrazio-kontseiluak, zeinaren % 50 Nafarroako Gobernuarena baita, erabaki zuen lantalde bat osatzea, egoera aztertu eta proposamen bat egiten duena, kasua bada, Nafarroako Gobernuari helarazteko”.

Horri buruz, parlamentari honek honako hau jakin nahi du:

Lehena. Nortzuek hartu duten parte lantalde horretan (izen-abizenak eta ordezkatzan duten erakundea).

Bigarrena. Egin diren bilerak eta bilera horien datak.

Hirugarrena. Proposamena Nafarroako Gobernuari helarazi zitzaion data.

Iruñean, 2021eko urtarrilaren 28an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Arga eta Urederra ibaietako kontserbazio bereziko eremuaren (KBE) gidaritza batzordea eratzeari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Arga eta Urederra ibaietako kontserbazio bereziko eremuaren (KBE) gidaritza batzordea eratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakien:

Q20/ 1122 espedientean, Ega Bizirik Elkarteak Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren aurka aurkeztutako kexa bat izapidetu zen, Nafarroako Gobernuak kontserbazio bereziko eremuetan, bereziki Ega eta Urederra ibaietakoan, agertutako pasibotasuna dela-eta. Horri dagokionez, Arartekoak ondokoa adierazi zuen:

“Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak kontserbazio bereziko eremuetako gidaritza batzordeak pixkanaka eratzeko agerturiko borondatea gorabehera, erakundeak uste du, batzorde horien parte-hartzerako eta kon-

tsultarako organo-izaera dela-eta –kudeaketa planaren lurraldeko eragileek osatzen dituzte (martxoaren 8ko 16/2017 Foru Dekretuaren 3.1. artikulua) eta aplikatzekoa zaien araudian ezarritako eginkizun zehatz batzuekin sortzen dira–, beharrezkoa dela horiek eratzeko kontserbazio bereziko eremuak behar bezala kudeatzeko; izan ere, organo horien baitan kasuko eremuko ingurumenaren babesa xedetzat duten entitateek (kexaren aurkezlea kasu) parte hartzeko eta administrazio eskudunak kasuko kontserbazio bereziko eremuaren kudeaketa planari buruzko kontsultak egiteko aukera dute.

Hori dela eta, uste dugu beharrezkoa dela Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari gomendatzea lehenbailehen eratu ditzan Nafarroan dauden kontserbazio bereziko eremuetako gidaritza batzordeak eta, bereziki, kexa aurkeztu duen elkarteak aipaturikoa (Ega eta Urederra ibaietako Kontserbazio Bereziko Eremuko)”.

Gauzak horrela, honako hau jakin nahi dugu:

– Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak ba al du asmorik Nafarroako Arartekoak EGA Bizirik elkarteak aurkeztutako kexa dela-eta eginiko gomendioa onartu eta Ega eta Urederra ibaietako Kontserbazio Bereziko Eremuko gidaritza batzordea eratzeko?

– Departamentuaren ustez, noizko egonen da eratusa gidaritza batzorde hori? - Eta batzordeak eratu gabe dituzten gainerako kontserbazio bereziko eremuetakoak? - Zer egutegirekin ari da lanean departamentua batzordeak osatzeko?

Iruñean, 2021eko otsailaren 1ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Arga eta Urederra ibaietako kontserbazio bereziko eremuaren (KBE) kudeaketa planaren finantzaketari eta gastuei buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Arga eta Urederra ibaietako kontserbazio bereziko eremuaren (KBE) kudeaketa planaren finantzaketari eta gastuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakien:

Martxoaren 8ko 16/2017 Foru Dekretuak “Ega-Urederra ibaiak” izeneko Batasunaren Garrantzizko Lekua Kontserbazio Bereziko Eredu izendatu, haren kudeaketa plana onetsi, eta “Urederraren iturburu” (RN-14) eta “Lasiako erreka-zuloa” (RN- 13) natura-erreserbak erabili eta kudeatzeko plan zuzentzaileak eguneratzen ditu.

Aipatu foru dekretuaren eranskinean sartu zen KBEa kudeatzeko plana; VIII. apartatuan, Kudeaketa planaren finantzaketa izenekoan, honela dio:

“Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentuak honako hauek hartuko ditu bere gain:

– Gunearen kontserbazio egoera ona bermatzen duten mantentze eta lehengoratzeko proiektuak gauzatzeko behar diren diru zenbatekoak.

– Ekipamenduak eta kudeaketaren egitura mantentzeko behar diren diru zenbatekoak.

– Erabilerak eta jarduerak mugatzearen ondoriozko kalte-ordainak ordaintzeko behar diren kontu-sailak.

– Plana gauzatzeko eta haren helburuak lortzeko behar diren bestelako kontu-sailak.

Hori guztia ordainduko da horretarako kreditu egokia baldin badago. Beraz, behar diren konpromisoak hartuko dira unean-unean aurrekontuan dagoen diruaren arabera”.

Gauzak horrela, honako hau jakin nahi dugu:

– Martxoaren 8ko 16/2017 Foru Dekretua onetsi denetik zein dira Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak edo Gobernuaren gainerako departamentuek ekipamenduak eta kudeaketaren egitura mantentzera urtero bideratu dituzten zenbatekoak?

– Martxoaren 8ko 16/2017 Foru Dekretua onetsi denetik zein kalte-ordaini egin behar izan die aurre Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak kudeaketa planean jasotako erabilerak eta jarduerak mugatzearen ondorioz?

– Martxoaren 8ko 16/2017 Foru Dekretua onetsi denetik zein dira Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak edo Gobernuaren gainerako departamentuek gunearen kontserbazio egoera ona bermatzen duten mantentze eta lehengoratzeko proiektuak gauzatzera urtero bideratu dituzten zenbatekoak?

– Martxoaren 8ko 16/2017 Foru Dekretua onetsi denetik zein dira Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak edo Gobernuaren gainerako departamentuek KBE horren kudeaketa plana gauzatzera eta haren helburuak betetzera urtero bideratu dituzten zenbatekoak, aurrekontuko partidez gain?

Iruñean, 2021eko otsailaren 1ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Ega eta Urederra ibaietako kontserbazio bereziko eremuaren (KBE) gidaritza batzordea eratzeari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Ega eta Urederra ibaietako kontserbazio bereziko eremuaren (KBE) gidaritza batzordea eratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakien:

Q20/ 1122 espedientean, Ega Bizirik Elkartek Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren aurka aurkeztutako kexa bat izapidetu zen, Nafarroako Gobernuak kontserbazio bereziko eremuetan, bereziki Ega eta Urederra ibaietakoan, agertutako pasibotasuna dela-eta. Horri dagokionez, Nafarroako Arartekoak ondokoa adierazi zuen:

“Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak kontserbazio bereziko eremuetako gidaritza batzordeak pixkanaka eratzeko agerturiko borondatea gorabehera, erakundeak uste du, batzorde horien parte-hartzerako eta kon-

tsultarako organo-izaera dela-eta –kudeaketa planaren lurraldeko eragileek osatzen dituzte (martxoaren 8ko 16/2017 Foru Dekretuaren 3.1. artikulua) eta aplikatzekoa zaien araudian ezarritako eginkizun zehatz batzuekin sortzen dira–, beharrezkoa dela horiek eratzeko kontserbazio bereziko eremuak behar bezala kudeatzeko; izan ere, organo horien baitan dute aukera kasuko eremuko ingurumenaren babesa xedetzat duten entitateek (kexaren aurkezlea kasu) parte hartzeko eta administrazio eskudunak kasuko kontserbazio bereziko eremuaren kudeaketa planari buruzko kontsultak egiteko.

Hori dela eta, uste dugu beharrezkoa dela Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari gomendatzea lehenbailehen eratu ditzan Nafarroan dauden kontserbazio bereziko eremuetako gidaritza batzorde guztiak eta, bereziki, kexa aurkeztu duen elkarteak aipaturikoa (Ega eta Urederra ibaietako Kontserbazio Bereziko Eremuko)”.

Gauzak horrela, honako hau jakin nahi dugu:

– Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak ba al du asmorik Nafarroako Arartekoak EGA Bizirik elkarteak aurkeztutako kexa dela-eta eginiko gomendioa onartu eta Ega eta Urederra ibaietako Kontserbazio Bereziko Eremuko gidaritza batzordea eratzeko?

– Departamentuaren ustez, noizko egonen da eratu gidaritza batzorde hori? - Eta batzordeak eratu gabe dituzten gainerako kontserbazio bereziko eremuetakoak? - Zer egutegirekin ari da lanean departamentua batzordeak osatzeko?

Iruñean, 2021eko otsailaren 1ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, 2020ko martxoaren 13tik Nafarroako Gobernuak izapidetutako enplegu erregulazioko espedienteen txostenean jasotako datuen bilakaerari buruzkoa.

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak aurkezturiko galdera, 2020ko martxoaren 13tik Nafarroako Gobernuak izapidetutako enplegu erregulazioko espedienteen txostenean jasotako datuen bilakaerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2020ko maiatzaren 6an Garapen Ekonomiko-kontseilari Manu Ayerdi Olaizola jaunak eginiko agerraldian Nafarroako Gobernuak 2020ko martxoaren 13tik izapideturiko enplegu erregulazioko espedientei buruzko txosten bat helarazi zitzaigun.

Parlamentari honek haxe jakin nahi du:

- Zein da txosten horretan jasotako datuen gaur egungo bilakaera, espediente horiek ukitutako pertsonen errentaren arabera segmentazioa barne?

Iruñean, 2021eko otsailaren 2an.

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

Galdera, Kanarietatik datozen migratzaileak hartzeko plaza gehigarrii buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Kanarietatik datozen migratzaileak hartzeko plaza gehigarrii buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

1.- Azkenean, lortu al du Nafarroako Gobernuak Kanarietatik etorritako migratzaileak hartzeko beste plazarik aurkitzea, gizarte entitateek – Gurutze Gorriak eta CEAR-Errefuxiatuei Laguntzeko Espainiako Batzordeak– dauzkaten programa arruntetako plazez gainera? Zenbat

plaza dira? Eskaini al zaizkio Migrazioen Estatu Idazkaritzari?

2.- Zer arrazoi eman ditu Migrazioen Estatu Idazkaritzak Foru Komunitateak dituen plaza guztiak ez aprobetxatzeko Kanariak jasaten duten migrazio-

presioa arintzeko? Jarrera hori egiaztatzen duten dokumentuak nahi ditugu, halakorik badago.

Iruñean, 2021eko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, Ertzillako Iturburuaren Partzuergoari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Ertzillako Iturburuaren Partzuergoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako ahozko galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, Lurralde Kohesiorako Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

2020ko abuztuaren 5ean Nafarroako Gobernuak argitaratutako prentsa-ohar batek, "Lurralde Kohesioak 700.000 euro inbertitu ditu Larraun-Leitzaldean tokiko azpiegiturak hobetzeko proiektuetan" izenburukoak, aditzera ematen zuen Ertzillako Iturburuko Partzuergoari 105.000 euroko dirulaguntza zegokiola.

2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Planean ezarritakoaren arabera, Ertzillako iturburutik araztegia bitarteko hodiaren berritze partziala (1.650 metro) proposatzen zen, 130.000 euroko zenbatekoarekin. Ulertu nahi dut proiektu bera dela, nahiz eta, jakin dugunaren arabera, proiektu hori ez den oraindik abiarazi.

Hori guztia ikusita, 2020ko abenduaren 1ean honako galdera hauek aurkeztu ziren, Lurralde Kohesiorako Departamentuak idatziz erantzun zitzaizkion:

1).- Zertan dago, gaur egun, Ertzilla iturburutik araztegia bitarteko hodiaren berritze partziala?

2.- Nolakoa da proiektuaren finantzaketa? Toki inbertsioen planeko dirulaguntzaz gain, aurreikusi al da proiektuak dirulaguntza gehiagorik jasotzea beste entitate batzuen aldetik? Hala baldin bada, zein dira horiek?

3).- Nafarroako Gobernuak, Ertzillako Partzuergoko kide denez, bilerarik izan al du proiektua garatze aldera? Baiezkoan, zenbat bilera izan dira eta zer erabaki hartu dira? Zer urrats egiten ari da Partzuergoan Nafarroako Gobernuak proiektua aurrera eramate aldera?

2021eko urtarrilaren 4an, Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako kontseilariak Ertzillako Partzuergo osatzen duten ordezkariekin izandako bilerekin buruzko galderari bakarrik erantzun zion, eta Ertzillako Partzuergoari buruz egindako bileretan jorratutakoa eta Nafarroako Gobernuak egindako jarraipen-lana zehaztu zituen, bertan ere Gobernu parte baita.

Galdera guztiei erantzun ez zaienez, honako galdera hauek egiten ditugu idatziz erantzuteko:

1).- Zertan dago, gaur egun, Ertzilla iturburutik araztegia bitarteko hodiaren berritze partziala?

2).- 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duen 18/2016 Foru Legearen arabera, Ertzillako Partzuergoak jasoko luke Ertzilla Iturburutik araztegia bitarteko hodia egiteko dirulaguntza. Ertzillako Partzuergo deseginen balitz, Nafarroako Gobernuaren erantzunak dioenaren arabera, nork jasoko luke dirulaguntza hori?

3.- Nolakoa da proiektuaren finantzaketa? Toki inbertsioen planeko dirulaguntzaz gain, aurreikusi al da proiektuak dirulaguntza gehiagorik jasotzea beste entitate batzuen aldetik? Hala baldin bada, zein dira horiek?

Iruñean, 2021eko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Arizkun herriko seinaleetan legea betetzeari buruzkoa.

FRANCISCO PÉREZ ARREGUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Pérez Arregui jaunak aurkezturiko galdera, Arizkun herriko seinaleetan legea betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Francisco Pérez Arregui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Dokumentu honi erantsitako argazkian eta, zehazki, hartan agertzen diren piktogrametan legea betetzen den jakin nahi dugu.

Iruñean, 2021eko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Francisco Pérez Arregui



Galdera, Nafarroako Ubidearen 2. fasearen garapenari buruzkoa.

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Ubidearen 2. fasearen garapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten dio Lurralde Kohesiorako kontseilariari, idatziz erantzun dakion.

Zure departamentua al da Nafarroako Ubidearen 2. fasea garatzeko eskumenak dituena?

Baiezkoan, zein urrats egingen dira eta zein dira horietarako epeak?

Iruñean, 2021eko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

Galdera, enplegu-politika aktiboen dokumentua onesteari buruzkoa.

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak aurkezturiko galdera, enplegu-politika aktiboen dokumentua onesteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zer egutegi darabil Nafarroako Enplegu Zerbitzuak, data eta helburu zehatzekin, eragile ekonomiko eta sozialekin, Enplegu Planaren parte izanen den enplegu-politika aktiboen dokumentua onesteko?

Iruñean, 2021eko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, Nafarroako osasun etxeetan pediatrik falta izateari buruzkoa.

ANA ISABEL ANSA ASCUNCE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Isabel Ansa Ascunce andreak aurkezturiko galdera, Nafarroako osasun etxeetan pediatrik falta izateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentariari atxikitako foru parlamentari Ana Ansa Ascunce andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

Hainbat osasun etxeetan pediatrik falta izateagatik hainbat udalerrri behin eta berriz kexatu direla ikusita, galdera hau egiten dugu, eta idatziz erantzutea nahi dugu.

– Nafarroan lan egiten duten pediatrikaren kopurua, guztira.

– Pediatrik ez duten osasun etxeen kopurua eta zehaztapena.

– Langintza hori familia-medikuntzako profesionalak betetzen duten osasun etxeen kopurua eta zehaztasunak.

Iruñean, 2021eko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: Ana Ansa Ascunce

Galdera, Nafarroako Gobernuak osatutako aldi baterako enplegu erregulazioko espedientei buruzkoa.

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak aurkezturiko galdera, Nafarroako Gobernuak osatutako aldi baterako enplegu erregulazioko espedientei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2020ko urrian, Nafarroako Gobernuak aparteko laguntza-lerro bat onetsi zuen, 2.975.000 eurokoa, COVID-19aren ondoriozko aldi baterako enplegu erregulazioko espediente batek ukitutako langileentzat.

Horri buruz, parlamentari honek hauexekin jakin nahi du:

- Zein dira COVID-19aren ondorioz izapidetu diren eta Nafarroako Gobernuak osatu dituen aldi baterako enplegu erregulazioko espedienteen xehetasunak? Laguntza horien onuradunen osa-

garriaren zenbatekoa, sektore ekonomikoak eta errenta-mailak aipatzea nahi dugu.

Iruñean, 2021eko otsailaren 4an.

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuko aretoen erabilerari buruzko arauak aldatzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 8an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, bestek beste:

Lehena. Nafarroako Parlamentuko aretoen erabilerari buruzko arauak aldatzea, ondoren aipatzen den moduan:

“1. Jarduera parlamentarioa eta instituzionala:

– Hemizikloa batik bat erabiliko da Parlamentuaren Osoko Bilkuraren jardura parlamentario-rako eta Legebiltzarreko Lehendakaritzak edo Mahaiak espresuki baimentzen dituzten bisitetarako eta bestelako irakaskuntza- eta dibulgazio-saio batzuetarako.

Publikoarentzako eserlekuak Mahaiaren erabaki bidez arautzen dira legegintzaldi bakoitzean.

– Erakunde-aretoa ekitaldi instituzionalerako baizik ez da erabiliko: jabetza-hartzeak, sari-banaketak eta Legebiltzarreko Mahaiak baimentzen dituen ordezkari-tza instituzionalerako ekitaldiak.

– Atalondoa egiten diren bakarrak ekitaldi instituzionalak eta Legebiltzarreko Mahaiak antolatzen dituen jardunaldi, ikastaro eta hitzaldiak izanen dira. Osoko Bilkura egiten denean, foru parlamentarietako eta Gobernu kideetako atalondoa emanen diete kasu hedabideei.

Halaber, atalondoa foru parlamentarietako edozein unetan erabiltzen ahalko dute beraiek egindako adierazpenak bidez grabatzeko edo hedabideei kasu emateko, betiere programaturiko jardura parlamentarioa eta instituzionala errespetatuz. Erabilera hori ez da arau hauen 3. apartatua aurreikusitako prozeduraren menpe egon.

– Parlamentuko atalondoa KulturAtrio proiekturako ere erabiliko da, Mahaiaren erabaki bidez exigitutako baldintzetan erakusketak egin baititezke bertan (-2016-02-17ko 19. NPAO).

– Mahaiaren eta Eledunen Batzarraren aretoa esleiturik duen xederako soilik erabiliko da; hau da, Mahaiaren eta Eledunen Batzarraren aldirak

ko bileretarako eta erakundeak erabakitzen dituenetarako.

– Batzorde aretoa eta ponentzia aretoa batik bat erabilera parlamentario eta instituzionalerako erreserbatutako espazioak dira.

– Gobernu aretoa Gobernu kideentzat erreserbatuta dago, Osoko Bilkura dagoen egunetan erabili ahal izan dezaten.

Areto hori beste egunen batean erabili nahi izan balute, horretarako lehentasuna izanen dute, alde aurretik erreserba eginez gero.

– Julia Álvarez Resano aretoa Lehendakaritzak koordinatutako ekitaldi eta bilkuretarako erreserbatutako espazioa da batik bat. Beste edozertarako erabili ahal izateko, Lehendakaritzak baimena eman beharko du berariaz.

– Erabilera anitzeko aretoa prentsaurrekoak egiteko eta Legebiltzarreko Mahaiak antolatutako ekitaldiak, jardunaldiak, ikastaroak eta hitzaldiak egiteko erabiliko da batik bat. Beste edozertarako erabili ahal izateko, Mahaiak baimena eman beharko du aurretiaz.

– Baluarte aretoa Mahaiko eta Eledunen Batzarrareko kideetako adierazpenak eta prentsaurrekoak egiteko erabiliko da batik bat. Beste edozertarako erabili ahal izateko, Mahaiak baimena eman beharko du aurretiaz.

“2. Foru parlamentarietako eta talde parlamentarietako jardura:

– Foru parlamentarietako eta haien talde parlamentarietako bilerak Legebiltzarreko talde horietako bakoitzari esleitutako bulegoetan egiten dira. Bilera horietan Nafarroako Parlamentuko kide ez diren pertsonetako ere parte hartzen baldin badute, ordezkari publiko izan zein ez izan, izena eman beharko dute, Legebiltzarraren egoitzara nor sartzen den kontrolatzeko.

– Halere, bilerara joatekoak diren pertsonen kopuruaren nahiz justifikatutako bestelako edozein inguruabarren ondorioz ezinezkoa baldin bada taldeen instalazioak erabiltzea, baimena

eskatzen ahalko da ponentzien aretoa, gobernu aretoa eta Julia Álvarez Resano aretoa erabiltzeko.

Horretarako baimena 3. apartatuan aurreikusitako prozedurari jarraikiz emanen da, eta lehentasuna izanen du jarduera parlamentario eta instituzionalak. Betiere, beharrezkoa izanen da foru parlamentari diren pertsonak egotea bileran, parte hartuz nahiz bertaratuta.

– Nafarroako Parlamentuko kideek erabilera anitzeko aretoan emanen dituzte prentsurrekoak. Foru parlamentari izaera ez duten pertsonak ezin izanen dute erabilera anitzeko aretoa erabili hedabideei kasu emateko, salbu eta agerraldia foru parlamentariak lagunduta egiten badute. Talde parlamentarioek hedabideei dei egiten ahalko diete, Nafarroako Parlamentukoak ez diren pertsonak lagunduta, Parlamentuko Mahaiari jakinarazten badiote.

Halaber, senatari autonomikoak, Kontuen Ganberaren lehendakariak eta Arartekoak erabilera anitzeko aretoa erabiltzen ahalko dute nahi duten unean haien jardueraren berri emateko. Horretarako baimena arau hauen 3. apartatuan aurreikusitako prozedurari jarraikiz emanen da.

– Zilegi izanen da ponentzia aretoa erabiltzea prentsari adierazpenak egin diezazkioten Nafarroako Parlamentuko batzordeen lan-bilkura batean parte hartu du(t)en pertsonak edo pertsonak edo

kolektiboek, lan-bilkura bukatzen denean (Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 1993ko apirilaren 19an hartutako erabakia eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2005eko azaroaren 7an egin-dako bilkuran hartutako erabakia).

– Baldin eta, salbuespen modura, arestiko apartatuan erabilera parlamentarioak edo instituzionalerako mugatutako beste aretoetako bat erabiltzea eskatzen baldin badute talde parlamentarioek edo foru parlamentarioek banaka, eutsi eginen zaio horretarako baimena Mahaiak ematearen irizpideari, eta betiere beharrezkoa izanen da foru parlamentari diren pertsonak egotea bileran, parte hartuz nahiz bertaratuta”.

Bigarrena. Salbuespen gisa, COVID-19ak sortu duen egoera dela-eta, Mahaiak baimena ematen du foru parlamentariak eta talde parlamentarioak erabilera anitzeko aretoa, Baluarte aretoa eta batzorde aretoa erabil ditzaten, Legebiltzarreko zerbitzuei aurretiaz eskaera egin-da, arau hauen 3. apartatuak xedatzen duen moduan.

Hirugarrena. Agintzea erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin, eta ezartzea argitaratzen den egun berean sar dadin indarrean.

Iruñean, 2021eko otsailaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias